

Txosnak jartzen zituzteneko urte zoragarriak

Hamahiru urteko ibilbidea eta gero badira sei urte txosnarik ez dagoela

ARKAITZ ILLARRAMENDI

Atzera begiratu eta lehenengo zein urtetan jarri zen zehatz-mehatz zehaztea zaila egin zait. Gaztea nintzen orduan, eta gure informazio iturriek esandakoari jaramon eginaz, urte hori hartuko dugu abiapuntu modura.

Lehenengo urtean txosna bakarra, gero bi, hiru... urteekin areagotzen joan ziren Geltoki eta Uistin kaleen artean, hots, egun lorategia dagoen lekuan zazpi edo zortzi jartzera iritsi arte. Goienera jo zuenean dozena inguru izango ziren. Urte gozoak ziren, gure solaskideek malenkonía apur batekin gogoratzen dituztenak.

Bilerak egin, programazioa zehaztu, Udalarai baimenak eskatu, txosnen egitura muntatu, etab. Lan eskerga egin behar izaten zen, baina bat datoz merezi zuela esatean.

"Ilusioa eta gogoa handiak ziren eta pena merezi zuen. Festak beste modu batean bizitzen genituen. Txosna-gunearen inguruan mundu guztiak parte hartzen zuen, eta ez ginen ikusle soilak sentitzen. Jende morda elkartzen ginen, baita beste herrietakoak ere. Elkarrekin presentzia herrian aditzera emateko eta diru apur bat ateratzeko ere, zergatik ez esan, balio zigun", azaldu digute.

Herritarren partaidetza

Zenbat elkartek jartzen zituzten gogora ekartzeko ariketa egin dugu, eta guztiak gogoratzea ezinezkoa izan zaigun arren, hainbat txosnen irudiak pasa zaizkigu begien aurretik; Gestorena, CNTreña, Kakitzat Talde

Urteak dira herriko festetan txosnarik jartzen ez dituztela. Are gehiago, badira San Pedro jaietan txosnak ezagutu ez dituztenak. Udalak eta Sorgin Jaietako Batzordeak adosturiko akordioari esker aurten Sorgin Jaiek gunea izango dute Hipodromo Etorbidean eta garai zaharrak ekarri nahi izan ditugu gogora.

Antimilitaristarena Muntteri AEK Euskaltegiarena, Ttaku-nena, Gualtrapasena, Jarrairarena, etab.

Hasierako txosna haiek zerikusi gutxi zuten gaur egun beste herrietan ikusten ditugun horiekin. Lehenengo haiek obretarako erabiltzen dituzten aldamiorekin muntatzen zituzten. Baliabide ekonomiko eta material gutxi zegoen, baina beti agertzen ziren lanerako prest zeuden herritarrek. Urteekin egiturak alokatzen hasi ziren eta baldintzak hobetzen joan ziren. Zueteriko asko egongo zarete oilasko erreak edo bokatak goxoak bertan janda.

Denborarekin, bestelako azpiegituraz gain, Udalak estali gabeko oholza txiki

bat jartzea ere lortu zuten eta bertan ekintza desberdinek antolatzen zituzten. Karaokea, dantza lehiaketa, musika kontzertuak, espektak, etab. Guzti hori antolatzeko elkarrekin arteko koordinazioa ezinbestekoa zen, eta lehenengo bilerak Aste Santu inguruan hasten zituzten.

Oholtza jarri aurretik, ordea, baliabideak urriak zirenez imajinarioz baliatzen ziren arazoei aurre egiteko. Galdetu bestela Cozategitarrei, euritik babesteko txosna eta txosna artean plastiko bat jarrita jo baitzuten Lasarte-Orian, eta txosna barruan jo dutenak ere izan dira.

Herriko taldeez gain, Manolo Cabezabolo, Disci-

pulos de Otilia eta beste talde askoren erritmoak dantzatu ditugu txosnetan.

Eta bitxikeriak aipatzen hasita, nork ez ditu gogoratzen arrautza-borrokak?

Azkenekoz, 2000n

Pixkanaka, ordea, eta txosnen gorakadaren ostean gainbehera hasi zen. Gero eta espazio handiagoa eskatzen zuten, eta agintarien aldetik gero eta zailtasun gehiago aurkitzen zituzten. "Urte batean argi indarra kendu ziguten, baina hori generadoreekin konpondu genuen", gogoan dute.

2000 urtean mundua amaituko zela iragarri zuten batzuk. Mundua ez, baina Lasarte-Orian txosnak azkenekoz jarri zituzten. Urte bete beranduago txosnen aldeko manifestazioa antolatu zuten. Udalak Hipodromoko zubian jarri nahi zituen, eta ez zen akordiorik lortu. Txosnak jartzen zituzten taldeek manifestazioa egin zuten, txosnak zentroan jartzeko aldarrikatuz. Urte hartan, txiringitza jarri zuten Okendo plazan eta 2002an egunkariak saltzeko kioskoa erabili zuten txosna gisa.

Aurten, Udalaren eta Sorgin Jaiek-eko Batzordeak hitzartutako akordioari esker, Sorgin Jaiek gunea izango dute Hipodromo etorbidean.

Gure solaskide guztiak oso positiboki baloratu dute akordioa eta urte haietako giro partehartzailea berreskuratzeko balioko duen esperantza adierazi digute. Hurrengo urteetan zer gertatuko den, nork jakin? "Urte gozo haiek!" entzutea iruditu zait hasperen artean.

Txosna gunearen ezaugarri berezkoena sortzen zen giro partehartzaila eta baliabidegabezia ilusioarekin ordezkatzeko zuten

Udalak eta Sorgin Jaiek-eko Batzordeak aurten lortu duten akordioak ateak zabal ditzake datozen urteetan txosnak jartzeko